BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5298

AGINDUA, 2011ko irailaren 21ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Sustraiak Fundazioa» fundazioaren estatutuetako 37. artikuluaren aldaketa eta horren ondorio den Fundazio-estatutuen testu bateratua onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Nagore Gandiaga Santos eta Merkat Bernaola Menchaca jaun-andrek –Bilboko «Sustraiak Fundazioa» fundazioaren ordez eta izenean– izenpetutako eskabidea aurkeztu zen Justizia eta Herri Administrazio Sailean 2011ko irailaren 9an, fundazioaren estatutuen 37. artikuluaren aldaketa eta horren ondorio den Fundazio-estatutuen testu bateratua inskribatzeko eskatuz Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari. Basauriko notario Javier Pablo Rodríguez Santamaríaren aurrean 2011ko uztailaren 21ean emandako eskritura publikoaren kopia baimendua ere itsatsi dute (745 zenbakiko protokoloa), non jasota baitago Fundazioaren Patronatuak 2010eko azaroaren 23an hartutako erabakiaren ziurtagiria, estatutuen aldaketari eta horien testu bateratuari buruzkoa.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, ebazpen-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako lege-xedapen hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatu manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Basauriko (Bizkaia) «Sustraiak Fundazioa» fundazioaren estatutuetako 37. artikuluaren aldaketa eta horren ondorio den Fundazio-estatutuen testu bateratua onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutu-aldaketa eta estatutu berrien testu bateratua inskribatu daitezela agintzea, agindu honen data dutela, eta Basauriko notario Javier Pablo Rodriguez Santamariaren aurrean 2011ko uztailaren 21ean egiletsitako eskritura publikoan ezarritakoari jarraituz (protokolo zenbakia: 745).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta Fundazioari bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 21a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.